

## Demokraziaren izpiritua

*El Mundo del País Vasco*, 1991-06-14.

Idazten ari naizen honetan oraindik ez da itunei buruz erabakirik hartu: hala ere aurrera nezake gogoeta hau.

Orain arte, egiazko demokrazia adjetiborik gabe agertzen dena dela azpimarratu izan dugu euskaldunok frankismoaren bota azpitik, zeren eta honen "demokrazia organikoa", ez baitzen demokrazia; "demokrazia popularra" ez den modu berean. Gauza berdintsua gertatzen da beste kasu batzuetan ere. Gogoan dut Hegoamerikako "Social-cristianismo"aren giroan zebiltzen alderdiei buruz Agirre Lehendakariak esaten zuena: kristautasunari alderdi "soziala" eranstea ez zela zilegi; "Kristautasun soziala" hitza ez zitzaion gustatzen: kristautasunak sozialtasuna bere sustraietan zeramala uste zuelako. Gaur, hauteskunde ondorengo sesioetan gabiltzala, zalantzan jarri dituzte demokraziaren eusgarri nagusiak dituen gehiengoa (maioria) eta gutxiengoarenganako (minoría) errespetua, biak batera; eta batzuei komeni zaiotelako darabilzkite arau honen orde z herriaren gobernabilitatea, eta herriaganako duten erresponsabilitatea. Erantzupide honen izpiritua sentitzen dute, diotenez, eta beran kontuan harturik erabakiko omen dute botoekin eroso iruditzen zaien kalkulabidea. Makiabelokeria bat iruditzen zait! Gobernabilitatearen izenean asmo paternalista eta probidentzial kutsua duen honek gure herriko demokraziaren oinarriak kutsatu ditzazke. Beste aldetik, Ardanza Lehendakariak eutsi egin dio hirukoitza den Eusko Jaurlaritzari, agindu bezala; euskaltzaletasunaren bidean doalako, noski. Egiazko merituak egiteko nahikoa da batzutan gizonki jokatzeko.